



LAKUNTZA

2024ko apirila. LAKUNTZAKO UDAL BULETINA www.lakuntza.eus

Parkea martxan: amesten

Aurrera doa parkean eraberritze lanak erabakitzeko hasierako fasea. Ideia ugari ari dira ateratzen, haur, gazte, familia eta pertsona helduak ari dira parte hartzen saioetan. Maiatzean proposamena garatuko da eta ekainean erabakiko dira egin beharreko lanak. Udaran zehar auzolanean lanak burutzea da asmoa.



Avanza la fase inicial para decidir las mejoras que se plantean realizar en el parque. En las sesiones participativas que se están realizando con diferentes grupos de edad están saliendo muchas ideas y propuestas de mejora. Durante el mes de mayo se preparará una propuesta con las ideas recibidas y será en junio cuando se decidan los trabajos a realizar. La idea es llevar a cabo trabajos en auzolan durante el verano.

Liburuzain - kultur dinamizatzaile lanpostua Puesto de biblioteca - dinamizador(a) cultural

Plantilla organikoan lanpostu berria sortu du udalak. Lanaldia % 55ekoia izango da, liburutegiko ordutegiaren arabera (ordutegi orokorra, 16:30etik 20:30era eta goizez udan). Aldi baterako oposizio-lehiaketa bidez beteko da. Liburutegia irailean irekitzea aurreikusten du udalak.

El ayuntamiento ha creado un nuevo puesto de trabajo en la plantilla orgánica para dar servicio en la biblioteca. La jornada laboral será del 55%, conforme al horario de biblioteca (horario general, de 16:30 a 20:30 horas y en horario de mañana en verano). La provisión se realizará mediante concurso-oposición. El ayuntamiento prevé abrir la biblioteca en septiembre.

Mikel Arregi Marin, Nafarroako Gobernuak biktima gisa aitortua

Mikel Arregi Marin, reconocido como víctima por el Gobierno de Navarra

Nuestro vecino y el que fuera concejal del Ayuntamiento de Lakuntza, Mikel Arregi, junto a otras 11 personas navarras, ha sido reconocido oficialmente por el Gobierno de Navarra como víctima por actos de motivación política provocados por grupos de extrema derecha o funcionarios públicos, al amparo de la Ley Foral que busca la reparación de personas cuyos derechos humanos fueron vulnerados en un contexto de violencia de motivación política.

Gure herrikide eta Lakuntzako Udaleko zinegotzi izandako Mikel Arregi, Nafarroako beste 11 lagunekin batera, ofizialki onartu ditu Nafarroako Gobernuak eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktima gisa, motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideak urratu zitzazkien pertsonen erreparazioa bilatzen duen Foru Legearen babesean.



Pantaila digitala

"Sakanako Landa Merkataritza bultzatzeko, eraldatzeko eta erresilientziarako laguntza" proiektuaren barruan, pantaila digitala instalatu da udaletxeko fatxadan. Ekimen hau Sakanako landa merkataritza bultzatzeko 13 ekintza biltzen dituen proiektu zabalago baten barruan kokatzen da eta Europako Next Generation funtsek % 90ean finantzatu dute.

Dentro del proyecto "Impulso Comercio Rural Sakana, apoyo a su transformación y a su resiliencia" se ha procedido a instalar la pantalla digital en la fachada del Ayuntamiento. Esta actuación se enmarca de un proyecto más amplio que enmarca 13 acciones diferenciadas e independientes para impulsar el comercio rural de Sakana y que ha sido financiado en un 90% por los fondos europeos Next Generación.

Zabortegiaren itxiera eta berreskurapena

Clausura y recuperación medioambiental del vertedero

Datozen hilabeteetan Lakuntzako zabortegia itxi eta berreskuratzeko lanak egingo dira. Berain mendiaren magalean, Arnatzeko dermioan dagoen zabortegia 1985ean hasi zen erabiltzen. Ia 40 urte hauetan hondakin mota ugari isuri dira bertan, hondakinen kudeaketaren lege-arloko bilakaeraren arabera, soil-soilik lurrik isurtzera mugatu arte. 2008. urtean, Lakuntzako Udalak itxiera-proiektua idatzi zuen, eta 2012. urteaz geroztik, Contenedores y Transportes Gabirondo S.L. empresa arduratu da hondakindegia kudeatzeaz. Una vez recuperada, se procederá a abrir la zona tanto para el disfrute de personas como para zona de pasto.

En los próximos meses se procederá a la clausura y recuperación medioambiental del vertedero de Lakuntza. El vertedero de Lakuntza comenzó a ser utilizado en el año 1985 en la falda del monte Berain, en el comunal en el dermio de Arnatz. En estos casi 40 años se han ido vertiendo diferentes tipos de vertidos, que han sido restringidos con el paso del tiempo de acuerdo a la evolución en materia legal de la gestión de residuos, hasta limitar los vertidos única y exclusivamente al vertido de tierras. En el año 2008 el Ayuntamiento de Lakuntza redactó el proyecto de clausura, y desde el año 2012 ha sido la empresa Contenedores y Transportes Gabirondo S.L. la encargada de la gestión de la escombrera. Una vez recuperada, se procederá a abrir la zona tanto para el disfrute de personas como zona de pasto.

Lore zaintza eta zonalde berdeen mantenu lanak egiteko 2 pertsonen kontratazioa

2 personas para realizar trabajos de mantenimiento de jardinería y zonas verdes

Nafar Lansarek Nafarroako toki entitateei interes orokorreko edo sozialeko obrak eta zerbitzuak egiteko langabetuak kontratatzearagatik dirulaguntza deialdiaren barruan egingo dira. Batik bat berdeguneen mantentze lanak egitera bideratuko dira. Deialdian parte hartzeko baldintza izango da langabetua izatea eta MAIATZAren 10a baino lehen Altsasuko emplegu bulegoan izena emanda izatea (948 56 27 54).

Las contrataciones se realizarán dentro de la convocatoria de subvenciones para la contratación de personas desempleadas del Servicio Navarro de Empleo-Nafar Lansare para la realización de obras y servicios de interés general o social. Realizarán mayoritariamente labores de mantenimiento de zonas verdes. Será requisito estar desempleada y estar inscrito en la oficina de empleo de Altsasu antes del 10 de MAYO (948 56 27 54).

Info + www.lakuntza.eus



Lakuntza UEMAn

Lakuntza Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean onartua izango da maiatzaren 18an Lesakan burutuko den batzar orokorrean. Azkeneko datu soziolinguistikoan arabera euskararen ezagutza % 71 ingurukoa izanik, UEMAn sartzeko aukera leihoa ireki dio Lakuntzari. Euskararen biziraupenari eta erabilera bultzada emateko, euskal hiztun komunitatea ahalduntzeko eta euskararen arnas gunen zaintza eta garapena sustatzeko UEMAk eskaintzen dituen zerbitzu eta egitasmoak baliatu nahi dira Lakuntzan. Horretarako Lakuntzako Udalak, herriko eragile ezberdinez osatutako talde motorra jarri nahi du martxan hurrengo asteetan. Talde motorrean parte hartu nahi baduzu, jarri harremanetan udalarekin!

Lakuntza será integrada en la Mancomunidad de Municipios euskaldunes en la asamblea general que se celebrará el 18 de mayo en Lesaka. Los últimos datos sociolíngüísticos sitúan el conocimiento del euskera en Lakuntza en torno al 71%, lo que posibilita la entrada en UEMA, agrupación de municipios que trabajan a favor de la normalización del euskera. Lakuntza implantará los servicios y proyectos que ofrece UEMA para impulsar la supervivencia y el uso del euskera, fortalecer la comunidad vascoparlante de Lakuntza y cuidar los entornos del euskera. Para ello el Ayuntamiento de Lakuntza quiere poner en marcha en las próximas semanas un grupo motor formado por diferentes agentes de la localidad. Si quieras participar en el grupo motor, ¡ponte en contacto con el ayuntamiento!



Azoka maiatzaren 26an

La feria será el 26 de mayo

Maiatzaren azkeneko igandean izango da Lakuntzako bertako produktuen azoka. Helburua, lehenengo sektorean eta artisautzarekin lotutako pertsonen lana ezagutaraztea izango da, elikadura eta lurrarekiko sentsibilizazio eta kontzientziazioa bultzatzeko. Azoka eguna antolatzeko bilera irekiak egin ditu udalak eta erantzuna oso ona izaten ari da. Hiru eremutan banatuko da azoka: bertako haziendaren erakusketa gunea, artisau eta ekoizleen salmenta gunea eta lakuntzarren gunea. Azoka egunerako egitaraua ere lantzen ari da, gorde data agandan!

La feria de productos locales de Lakuntza tendrá lugar el último domingo de mayo. El objetivo será dar a conocer el trabajo de las personas relacionadas con el sector primario y de esta manera impulsar la sensibilización y concienciación sobre la importancia de los alimentos que consumimos y también sobre la manera en la que nos relacionamos con la tierra. La feria estará distribuida en 3 áreas: zona de exposición de hacienda de Lakuntza, puestos de venta de productores y productoras y artesanía y zona de puestos de personas de Lakuntza. La feria irá acompañada de un programa de actos en los que se está trabajando y que se publicará en breve. Guarda este día para quedarte en Lakuntza.

Herrigune historikoan eguzki plakak jarri ahal izateko hirigintzako ordenantza aldatua

Modificada la ordenanza urbanística para posibilitar la instalación de placas solares en el casco histórico

Lakuntzako Udalak S1- Hirigune Historikoa Sektoreko hirigintza-plangintzaren ordenanza aldatu du, energia berritzagarriak bultzatzearen alde eguzki-plakak jarri ahal izateko. Era berean, eta alde zaharreko eraikinen irisgarritasun-baldintzak hobeteko helburuarekin, eta igogailuen instalakuntzak batzuetan eraikinaren altuera gainditzen dutela (planak ez du horretarako aukerarik ematen) jakinik, salbuespen batzuk aurreikusi dira irisgarritasun unibertsala hobetze aldera.

El Ayuntamiento de Lakuntza ha modificado la ordenanza del planeamiento urbanístico en el Sector S1- Casco Histórico para posibilitar la instalación de placas solares a favor de impulsar las energías renovables. Asimismo, y con el objetivo mejorar las condiciones de accesibilidad de las edificaciones del casco antiguo y siendo conocedores de que con la instalación de ascensores, algunas veces sobrepasan la altura de la edificación rompiendo el plano de cubierta (actuaciones que el plan no permite), se ha contemplado la posibilidad de poder valorar cada caso en aras de mejorar la accesibilidad universal.




Kyoko eta Tebe tentsio handiko lineen baimen administratiboari errekurtoak

Recursos a las autorizaciones de las líneas de alta tensión Kyoko y Tebe

Lakuntzako Udalak errekurritu egin ditu Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Energiaren estatu-idazkaritzak Forestalia talde pribatuari dagozkion, Kyoko eta Tebe 400 kV-ko goi-tentsioko lineei emandako administrazio-baimenak errekurritu ditu Lakuntzako Udalak. Aragoiko energia elektrikoa distantzia luzeetara garraiatzeko proiettatutako goi-tentsioko linea horiek Sakana osoa zeharkatuko lukete.

Ayuntamiento de Lakuntza ha recurrido las autorizaciones administrativas recibidas desde la secretaría de estado de energía, Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico, de los proyectos de líneas de alta tensión 400 kV que afectan a Lakuntza, correspondientes al grupo privado Forestalia, denominados Kyoko y Ume (después Tebe). Estas líneas de alta tensión se plantean como infraestructuras de evacuación de las instalaciones de producción de energía eléctrica de Aragón y que plantean que atravesar por toda Sakana.



Eskola laboraletan amiantoa kentzeko lanak

Trabajos para eliminar amianto en las escuelas laborales

Nafarroako Aurrekontu Orokoretatik 212.000 € jasoko ditu Lakuntzako Udalak, EH Bilduko talde parlamentarioak proposaturiko emendakin bati esker, eskola laboraletako eraikineko fibrozementuzko estalkia aldatzeko 1. faseari ekitiko. Fibrozementua amiantozko eta zementuzko aglomeratuak bere garaian, erabilera ugari izan zituen, baina jakina denez, amianto-zuntzak arnasteak biriketako gaixotasun larriak eragin ditzake, eta horiek erabiltea debekatu zuten. Beraz, amianto-elementu horiek kendum egin behar dira.

Eraikina, 1967ko otsailean Fernando Nagore arkitektoak egindako proiektuarekin eraiki zen. Gaur egun Sakana Mankomunitatearen egoitza, Tasubinsa, ANFASek kudeatutako arreta goiztiarreko egoitza eta beste erabilera batzuk hartzen ditu. Irañeta, Uharte Arakil, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Lizarraga, Unanu eta Dorrau udal eta kontzejuena da eraikinaren jabetza. Lakuntzako Udalak jardungo du horien guztien ordezkarri gisa lanen esleipena egiteko. Lanak 2024. urtean hasiko dira.

En los Presupuestos Generales de Navarra se ha recogido una partida nominativa a favor del Ayuntamiento de Lakuntza de 212.000 €, gracias a una enmienda propuesta por el grupo parlamentario de EH Bildu, para la ejecución 1ª fase cambio de cubierta y trabajos en el edificio de las antiguas escuelas laborales con el objetivo de la retirada de la cubrición de fibrocemento y su sustitución por sistemas constructivos inocuos.

El fibrocemento es un aglomerado de amianto y cemento ligero, que en su momento encontró multitud de utilidades, pero como es sabido la inhalación de fibras de amianto, provoca enfermedades pulmonares, que motivaron la prohibición de su uso. Así pues, estos elementos de amianto deben de ser retirados.

El edificio se construyó, según proyecto del arquitecto Fernando Nagore de febrero de 1967, como escuela de formación profesional y actualmente alberga la sede de la Mancomunidad de Sakana, instalaciones de Tasubinsa, sede de atención temprana gestionado por ANFAS, entre otros. El edificio es propiedad de los ayuntamientos y concejos de Irañeta, Uharte Arakil, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Lizarraga, Unanua y Dorrau. Será el Ayuntamiento de Lakuntza quien actúe en representación de todos ellos. Los trabajos deberán iniciarse en este año 2024.

Abuztuko festak, nola antolatuko ditugu?

¿Cómo organizaremos las fiestas?

1

MAIATZAK 3 OSTIRALA, 19:00 UDALETXEAN,
FESTA BATZORDE GAZTEA
COMISIÓN DE FIESTAS JOVEN



Gazte! Zatoz eta ekarri zure proposamenak
¡Joven! Ven y trae tus propuestas



2

MAIATZAK 15 ASTEAKENA, 19:00 UDALETXEAN,
FESTA BATZORDEA 1
COMISIÓN DE FIESTAS

EGITARAUAREN LEHENEGO ZIRRIBORROA OSATUKO DUGU!

- Herríko talde eta eragileak eta norbanakoei irekia
- Beraz... ekarri festetarako proposamenak, ideiak eta nahiak! Denon artean baloratu eta festetako lehenengo zirriborroa osatuko dugu. (Proposamenak ahalik eta landuen ekartzea gomendatzen da)

ELABORAREMOS EL PRIMER BORRADOR DEL PROGRAMA!

- Abierto a grupos y agentes locales y toda persona que quiera participar
- Así que... ¡trae propuestas, ideas y deseos para las fiestas! Entre todos y todas valoraremos y tendremos el primer borrador de fiestas. (Se recomienda traer las propuestas lo más trabajadas posibles)

3

EKAINAK 12 ASTEAKENA, 19:00 UDALETXEAN,
FESTA BATZORDEA 2
COMISIÓN DE FIESTAS



EGITARAU DEFINITIBOA
ETA EGIN BEHARREKO LANAK ZERRENDATUKO DITU
DEFINIREMOS EL PROGRAMA Y ENUMERAREMOS LOS TRABAJOS A REALIZAR

Jai eredu partehartzale, herritar,
inklusibo, parekide eta
eusklaldunak,... auzolanean.